

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak eta Estatuak Hitzarmen Ekonomikoaren oreka berrezartzea erabaki dute zergen likidazioaren urteroko ordainketa urte berean eginda

Barcina Lehendakaria gaur goizean elkartu da Sáenz de Santamaría lehendakariordearekin eta Montoro ministroarekin.

Lunes, 16 de diciembre de 2013

Nafarroako eta Espainiako gobernuak urteroko zergen ordainketa bi administrazioen artean egiteko egutegia aldatzea erabaki dute gaur goizean, hala, urte berean izapidetuko dira ordainketak, ez hurrengo urteko martxoan. Hala, Nafarroako Gobernuak Hitzarmen Ekonomikoaren oreka berreskuratuko du, estatuko kontabilitaterako irizpide berriek eta 2012an hitzarmen ekonomikoak izandako aldaketak oreka hori kaltetu baitzuten.



Ezkerretik eskuinera: Goicoechea, Sáenz de Santamaría, Barcina, Montoro eta Beteta.

Erabakia gaur goizean hartu du Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Soraya Sáenz de Santamaría lehendakariorde eta Lehendakaritza ministroarekin eta Cristóbal Montoro Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroarekin izandako bileran. Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria eta Antonio Beteta Administrazio Publikoen Estatu idazkaria ere bertan izan dira.

Bi administrazioek hartu dute konpromisoa aste hau amaitu aurretik egutegi-aldaketa formalki onesteko Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailearen bilera egiteko.

Barcina Lehendakariak adierazi duenez, erabakia hartu izana "bi gobernuek zergen finkapena betetzen laguntzen duten transferentzia- eta konpentsazio-mekanismoak errazteko duten harreman onaren eta borondatearen" adierazle dira.

Egokitzea eta oreka

Hitzarmen Ekonomikoak
Estatuko karga orokorrei eusteko
Nafarroaren ekarpena eta
Nafarroako eta Estatuko zerga-
sistemen arteko bateratze-irizpideak zehazten ditu. Bi sistemen
arteko oreka bermatu eta elkartasun-printzipioaren isla izan
behar duen legea da.

BEZa eta zerga bereziak likidatzeko egutegia aldatzean kontu
publikoen urteroko oreka berreskuratuko da. Hala, 2013ri
dagokion likidazioa urte honetako abenduan egingo da, 2014ko
martxoan egin beharrean. 2014ko likidazioa urte horretako abenduan egingo da, 2015eko martxoan egin
ordez.

Ordainketa-egutegiaren aldaketa 2015erako aurreikusitako hitzarmenaren hurrengo eguneratzea izenpetzen
den arte aplikatuko da. Bi gobernuek erabaki dute datorren urtearen hasieran hasia 2015-2019 bosturteko
berrirako negoziazioak.

